

• E EUORÉGIÓN
EUROESKUALDEA
EURORREGIÓN

NOUVELLE-AQUITAINE • EUSKADI • NAVARRE
AKITANIA BERRIA • EUSKADI • NAFARROR
NUEVA AQUITANIA • EUSKADI • NAVARRA

Ekintzen txostena 2024



Aurkibidea

Sarrera	5
Euroeskualdearen finantza-tresnak	6
1 Euroeskualdeko Hiritartasuna Proiektu-deialdia.....	7
2 Euroeskualdeko Berrikuntza Proiektu-deialdia	10
3 Lankidetza Estrategikoak	13
4 Euroeskualdeko Beka	15
Lurralde-animazioa eta ekitaldiak	16
1 Ikus-entzunezkoak	17
2 Eleaniztasuna	17
3 Mugaz gaindiko enplegua	18
4 Berrikuntza / Garapen ekonomikoa	20
5 Bio-Osasuna	21
6 Goi-mailako hezkuntza	22
7 Mugikortasuna	23
8 Lurraldearen behaketa.....	23
9 Ekitaldiak eta aurkezpenak.....	24
AFOMEF Mendebaldeko Eremu Funtzionala	28
2021-2027 Plan Estrategikoko adierazleen jarraipena	32
Balantze ekonomikoa	34
Gure bazkideen testigantzak.....	36

Sarrera

Akitania Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak berretsi eta indartu egin du bere lurraldeen eta ekosistemen arteko harremanak sendotzeko konpromisoa 2024an. Euroeskualdeko eta mugaz gaindiko gizarte orekatua lortzeko neurri zehatzak ezarri dira, besteak beste, kultura, ekonomia eta gizarte esparruen arteko etengabeko harremanean oinarrituta. Dinamika horri esker, komunitateen arteko harremana sendotu da, eta, aldi berean, baterako garapenerako aukera berriak sortu dira.

Euroeskualdeko lankidetza eragileak babesteko aurrerapen handiak izan dira urtearen ezaugarri nagusia. Aurrerapenen artean, Akitania Berriko lehendakaritza Nafarroara eskualdatu da eta 1,2 milioi euroko aurrekontu zuzkidura onartu da, eskualdeko ekimenak finantzatzeko. Babes ekonomiko horrek aurrerapen zehatzak ahalbidetu ditu: Euroeskualdeko Hiritartasuna sustatzeko 20 proiektu berri finantzatu dira; berrikuntzaren arloko 7 lankidetza babestu dira, eta 84 ikasle eta doktoregaik jaso dute Euroeskualdeko Beka, mugikortasuna erraztuz eta unibertsitateko trukeak aberastuz.

Euroeskualdeak lurraldea dinamizatzeko ahaleginak ere areagotu ditu, ikus-entzunezko jaialdi nagusietan aktiboki parte hartuz. Euroeskualdeko Animazio Sariak eta 2024ko Euroeskualdeko Bio-Osasun Sariak gure lurraldeko talentua eta berrikuntza nabarmendu dituzte. Unibertsitate sektorean ekitaldi handiak antolatu dira: Miarritzeko II. Unibertsitate Foroa eta UNINAEN plataforma abiaraztea horien artean funtsezkoak izan dira eragile akademikoen arteko sinergiak sustatzeko.

Horrez gain, mugaz gaindiko herritarren bizi-kalitatea hobetzeko ekimen garrantzitsuak jarri dira abian. Enpleguaren, mugikortasunaren eta eleaniztasunaren aldeko ekintzak abiarazteko INTERREG POCTEFA AFOMEF proiektu-deialdia argitaratu da. Hendaian antolatutako Mugaz Gaindiko Informazio Jardunaldiek 250 pertsona baino gehiagori lagundu diete izapide administratibo eta profesionalak betetzen. Azkenik, bigarren ez antolatu den «Mugaz gaindiko uneak» argazki lehiaketak partekatutako ondarearen aberastasuna eta aniztasuna omendu ditu, 150 klixe baino gehiago bilduz.

2024ko jardueren txostenak puntu hauek lantzen ditu:

- Euroeskualdeko finantza-tresnen hedapena
- Lurraldeko animazioa eta ekitaldiak
- POCTEFA 2021-2027 aldiko Mende baldeko Eremu Funtzionala
- 2021-2027 aldirako Plan Estrategikoko adierazleen jarraipena
- Balantze ekonomikoa
- Gure bazkideen testigantzak

Guztion babesari eta inplikazioari esker, lorpen garrantzitsuekin eta 2025eko erronkei aurre egiteko borondate berrituarekin amaitu da urtea. Elkarrekin, lurraldeen arteko harremana sendotzen jarraituko dugu, Euroeskualdea gure lurraldearen aurrerabidearen eta oparotasunaren zerbitzura dagoen mugaz gaindiko lankidetzarako eragile nagusi eta berritzaile gisa kokatuz.



Euroeskualdearen finantza-tresnak

1 «Euroeskualdeko Hiritartasuna» proiektu-deialdia

2 «Euroeskualdeko Berrikuntza» proiektu-deialdia

3 Lankidetzaren estrategikoak

4 Euroeskualdeko beka

D 1 «Euroeskualdeko Hiritartasuna» proiektu-deialdia

Abian diren proiektuak

2024an, Euroeskualdeak mugaz gaindiko proiektu anbiziotsuekin bat egiten jarraitu du, aurreko urteetan abiatutako ekimenak babestuz eta egitasmo berriak garatuz. Proiektu batzuek heldutasuna lortu dute, eta beste batzuek, berriz, aurrera egin edo osatuz joan dira, mugaz gaindiko lankidetzaren aniztasunaren eta eraginkortasunaren seinale. «Euroeskualdeko Hiritartasuna» ardatz estrategikoaren esparruan, dozenaka proiektu dira abian, eta lantalde teknikoak jarraipen estua egiten die.

Euroeskualdeak hainbat mailatan esku hartzen du, publiko anitzari zuzenduta dago eta helburu ugari ditu. Mugaz gaindiko ondarearen sustapena da euroeskualdeko nortasun partekatua eta integratzailea indartzeko lehentasunetako bat. Hainbat eskalatan egindako lan horrek gure lurraldeen arteko harremanak estutzen laguntzen du.


Inklusioa gure ekintzen elementu nagusia da eta horixe erakusten du **GUZTIONTZAKO BOB** proiektuak, desgaitasuna duten edo gizarte bazterkeria arriskuan dauden pertsonen kirolerako sarbidea sustatzea xede duenak. Egitasmoaren helburua kirol inklusiboa eta irisgarria bultzatzea da, gizarte kohesioan lagunduz. Konpromiso hori 2024an abian jarritako **BIDASOA ISURIA** proiektuan ere islatzen da, zeinak mugaren bi aldeetako eskubaloi klubak babesten baititu. Gaitasunak hobetzen laguntzea, eta, aldi berean, mugaz gaindiko benetako kirol komunitate bat sortzea da helburua. Nazioartean izen handia duten jokalariek, hala nola Jérôme Fernandezek eta Julen Aguinagaldek, beren esperientzia eskaini eta tokiko taldeei laguntzen diete beren garapenean.



● BIDASOA ISURIA



● KARRIKAN



● MUGALUR

Artea eta kultura arloari dagokionez, Euroeskualdeak aktiboki parte hartzen du obren sorkuntzaren eta zirkulazioaren sustapenean. Horren adibide da, kaleko arteen alde egiten duen **KARRIKAN** proiektua, sortzen ari diren bi konpainia babesten dituenena. Programa horrek laguntza pertsonalizatua, baliabideak eta ezagutza eskaintzen du euskarazko edo testurik gabeko ikuskizunak sortzeko, sustatzeko eta zabaltzeko, publiko zabal batentzako irisgarritasuna erraztuz; eta hor dugu mugaren bi aldeetako ikus-entzunezko sektoreko eragileak konektatzen dituen **ZINEMA ZUBIAK** programa ere, arlo horretako lankidetzaren indartu eta ekimen berrien agerpena bultzatzen duena.

Gazteek lehentasun estrategikoa izaten jarraitzen dute, haiek baitira Euroeskualdearen etorkizuna. **UR BIZIAK** proiektua hiru ikastetxetako ikasleak biltzeko borondatearen erakusle ezin hobea da, mugaz gaindiko auzotarren errealitatea ezagutaraztea helburu duena. Proiektuak parte hartzen duten gazteen kultura-trukeak eta ikaskuntzak bultzatzen ditu.

Azkenik, **MUGALUR** proiektuak mugaren mapa mental bat argitaratu du 2024an. Egitasmo parte-hartzaile horrek mugaz gaindiko hainbat gunetako biztanleen inplikazioa izan zuen eta haien sentimenduak, historiak eta nahiak bildu zituen. Bi artistak egindako mapak modu sortzailean irudikatzen ditu mugaren iragana, oraina eta etorkizuna. Emaitzak Euroeskualdearen ekintzak gidatzen dituen lankidetzaren eta batasun espiritua irudikatzen du.

Txosten honek Euroeskualdearen lorpen anitzen eta zehatzen ikuspegi orokorra eskaintzen du eta erakundeak inklusioarekin, kulturarekin, gazteriarekin eta mugaz gaindiko garapenarekin duen konpromiso iraunkorra azpimarratzen du.

Hautatutako proiektu berriak

2024ko «Euroeskualdeko Hiritartasuna» proiektu-deialdiari esker, 20 proiektu lagundu ahal izan dira diruz, guztira 499.950 euroko zenbatekoa banatuz. 36 proiektu aurkeztu ziren deialdira, eta horrek lurraldearentzat gero eta garrantzi handiagoa duela erakusten du. Honela sailkatu dira hautatutako proiektuak:

- **9 proiektu «Kultura» atalean.**
- **3 proiektu «Gizarte-erronka garaikideak» atalean.**
- **4 proiektu «Hezkuntza/Gazteria» atalean.**
- **Proiektu bat «Eleaniztasuna» atalean.**
- **3 proiektu «Kirolak» atalean.**

GAIA	PROIEKTUA	DESKRIBAPENA	BAZKIDEAK	PROIEKTUAREN AURREKONTUA	ONARTUTAKO DIRULAGUNTZA
GEG Gizarte-erronka garaikideak	MUGALUR	Proiektu honek mugaz gaindiko lurraldeetako biztanleak, ikertzailleak eta artistak bildu nahi ditu, mugaren gaiari buruzko trukea eta hausnarketa sustatzeko. Erakusketa ibiltari bat, ikerketa eta sorkuntzarako egoitzak eta ikus-entzunezko euskarri bat sortzeko prozesu parte-hartzaile bat biltzen ditu.	Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseilua <i>Akitania Berria</i> Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) <i>Euskadi</i> Cederna Garalur <i>Nafarroa</i>	60.500 €	30.000 €
	GIZARTERATZE KOMUNITARIO BERRIRANTZ (GKB)	Euroeskualdean aplika daitezkeen esku-hartze sozialeko eredu berritzaileak identifikatzea da proiektuaren helburua eta bertan, interes berezia duten eremu izango dira ingurune irekiko gizarte eta hezkuntzako esku-hartzea, belaunaldien arteko eta kulturen arteko lan komunitarioa, harrera eta familia babes espezializatua.	Zakan Sozial CIS-GEK <i>Nafarroa</i> OAD Association de protection de l'enfance <i>Akitania Berria</i> Hirube CIS-GEK <i>Euskadi</i> Agintzari CIS-GEK <i>Euskadi</i> OPEA Œuvre de Protection de l'Enfance et de l'Adolescence <i>Akitania Berria</i>	57.140 €	28.570 €
	BERTOKIN	Proiektuak Euroeskualdeko hirugarren sektoreko erakundeen eta profesionalen arteko lankidetzaren sare bat sortu nahi du, ezagutzak eta jardunbide egokiak trukatzeko, migratzaileen harrerarako, laneko eta gizarteko integrazioarako eta mugikortasunerako mugaz gaindiko protokolo bat bultzatzeko, eta, hori guztia atari digital batean agertuko du.	Fundación CORE <i>Nafarroa</i> Agiantza Elkartea <i>Euskadi</i> BUZBU Travail Social <i>Akitania Berria</i>	60.000 €	30.000 €
Kirola	BIDASOA ISURIA	Proiektu hau eskubaloiko hiru klubaren arteko lankidetzan oinarritzen da, eskubaloia bidez pertsonen garapena sustatzeko. Bertan, baterako entrenamendu-saioak, goi-mailako kirol-ekitaldiak eta jardunaldi sozialak zein ikastekoak antolatzen dira euroeskualdeko herritar, enpresa eta erakundeentzat.	Bidasoa Kirol Kluba <i>Euskadi</i> Stade Hendayais Handball <i>Akitania Berria</i> C.D. Erreka K.E. <i>Nafarroa</i>	67.350 €	30.000 €
	BENNA	Hainbat kategoria eta modalitatetako lagunarteko partidak, entrenamenduak, jokalarien teknifikazio campusa eta epaileen eta entrenatzaileen prestakuntza antolatzea da proiektuaren helburua. Lankidetzaren horrek jardueraren sozial eta kulturalak eskaintzen ditu, kolektibo marjinalak integratzen laguntzeko.	Saskibaloiko Euskal Federazioa <i>Euskadi</i> Nafarroako Saskibaloiko Federazioa <i>Nafarroa</i> Nouvelle-Aquitaine Basket <i>Akitania Berria</i>	76.836,50 €	30.000 €
	EHTE	Proiektuaren helburua mendiko ibilbideko lau geltokietarako marka bateratu bat sortzea, hobeto komunikatzeko eta sustatzeko aukera emanez, batez ere seinaleztapena instalatuz eta webgune bat sortuz (FRA, CAST eta EUS). Lankidetzaren horrek traileko korrikalariak eta tokiko mendi-ibilikiak erakartzen lagunduko du, eta, aldi berean, tokiko ekonomia sustatu eta errespetuzko kirol praktiken garrantziaz sentsibilizatuko du.	Baigorriko Udala <i>Akitania Berria</i> Goitur Turismoa S.L. <i>Euskadi</i> Tolosaldean Garatzen S.A. <i>Euskadi</i> Uharte Arakilgo Udala <i>Nafarroa</i>	54.794 €	27.397 €
Gazteria hezkuntza	EMAZU ESKUA	Proiektuaren helburua mugaz gaindiko euskarazko ikastetxeen arteko trukeak sustatzea da, hiru lurraldeetako ikasleek eta irakasleek arteko topaketarako jardunaldi tematikoak antolatuz.	Ikas-Bi <i>Akitania Berria</i> Ehige <i>Euskadi</i> HERRIKOA <i>Nafarroa</i>	40.000 €	20.000 €
	MUI	Mugaz herrietako gazteentzat udaleku ibiltari bat antolatzean datza proiektua, eta euskara hizkuntza komun gisa erabiliz, lurraldea deskubritu eta ezagutzea du helburu. Herriz herri ibiliko dira, Oiartzun, Lesaka, Bera, Sara eta Urruña zeharkatuz.	Oiartzungo Udala <i>Euskadi</i> Bortzirietako Euskara Mankomunitatea <i>Nafarroa</i> Sarako Udala <i>Akitania Berria</i> Urruñako Udala <i>Akitania Berria</i>	18.000 €	9.000 €
	FAMILI'ON	Proiektu honen helburua familientzako bi asteko mugaz gaindiko hizkuntza egonaldia antolatzea da. Gurasoak eta seme-alabak taldetan banatuko dira eta hainbat ikastaro eta jardueraren egingo dituzte euren euskara mailaren arabera. Ostaturaren iparraldean izango da, baina jarduerak izango dira Hegoaldean eta Nafarroan.	Plazara elkartea <i>Akitania Berria</i> Ebete <i>Euskadi</i> Dindaia Fundazioa <i>Nafarroa</i>	94.900 €	30.000 €
	JEDD	Proiektu honen helburua, bazkideen laguntzari esker, lurraldeko gazte boluntarioek eurentzako mugaz gaindiko mugikortasuna antolatzea da Iruñean. Proiektuan hainbat gaitasun garatu ahal izango dituzte (proiektuen kudeaketa, antolaketa, lankidetzaren), ondarearen deskubritu eta, ondoren, ikasitakoaren transmititu, gazteen arteko mugaz gaindiko mugikortasuna antolatzeko gida bat idatziz.	Maison de l'Europe des Landes Wipsee <i>Akitania Berria</i> Association Navarra Nuevo Futuro <i>Nafarroa</i> Irsearaba <i>Euskadi</i>	42.875 €	21.437,50 €

GAIA	PROIEKTUA	DESKRIBAPENA	BAZKIDEAK	PROIEKTUAREN AURREKONTUA	ONARTUTAKO DIRULAGUNTZA
Eleaniztasuna	BEHA 3.0	Proiektu honen helburua euskal komunikabideetan datuen kultura sustatzea da, hedabideei digitalizazioan lagundu eta erabakiak hartzeko, datuen bilketan, analisian eta erabileran oinarritutako informazioa izan dezaten. Analisi digitalerako tresnak integratuz eta datu horiek interpretatzeko trebetasunak garatuz, proiektuak audientzien ulermena hobetzea eta berrikuntza sustatzea espero du.	Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) <i>Euskadi</i> Hekimen Elkartea <i>Akitania Berria / Nafarroa</i>	60.004 €	30.000 €
Kultura	PIRENAEUS II	Pirinioez gaindiko bide erromatarriaren buruzko ikerketarekin jarraitzea, ondare arkeologiko partekatutako hori mugaz gaindiko ikuspegia oinarritutako hartutako lau hizkuntzetan (EUS, CAST, FRA, ENG) sustatzea eta gizarteratzea da proiektu honen helburua.	Aranzadi Zientzia Elkartea <i>Euskadi</i> Aurizko Udala <i>Nafarroa</i> Donazarharreko udala <i>Akitania Berria</i> Luzaideko Udala <i>Nafarroa</i>	31.700 €	15.850 €
	ETORKIZUNEKO IKUSLEAK	Ikus-entzunezko sektorean gazteen audientzia berriak sortu eta gizartearen zinemarekin berriro konektatu nahi ditu proiektu honek, tokiko zinemagileen eta ekoizleen filmak proiektatuz eta ikus-entzunezko hezkuntza eta alfabetizazio tailerrak antolatuz. Helburua zinemaz gozatzea eta ikusle gazteen artean trebetasun kritikoak garatzea da.	Begira Elkartea <i>Euskadi</i> GOLEM Yamaguchi <i>Nafarroa</i> Cine L'Atalante <i>Akitania Berria</i>	55.052 €	27.570 €
	DANSPIRE-NAIKA	Proiektuaren helburua partaidetza hiru dantza jaialdi antolatzea da, eskualde bakoitzean bat, non kaleko partaidetza dantza jarduerak (erromeriak, errondak, etab.), dantza tailerrak eta beste jardueraren osagarri batzuk antolatuko baitira.	Aiko kultur taldea <i>Euskadi</i> Maritzuli Konpainia <i>Akitania Berria</i> Kuruskla Asoc. Cultural <i>Nafarroa</i>	40.300 €	16.850 €
	EUSKAL IHAUTERIEK BERPITZTEA	Proiektuaren helburua euskal inauterietan buruzko eta azken urteetan zehar gazteei esker izan duen berpizteari buruzko erreportaje sorta bat ikertzea, ekoiztea eta zabaltzea da (podcastak, bideo-erreportajeak, idatzizko erreportajeak eta txosten berezi bat). Proiektuaren barruan, erreportaje horiek hainbat plataformatan zabalduko dira, gazteengana iristeko.	Abian Media SL <i>Nafarroa</i> Iparia Baigura Komunikazioa <i>Akitania Berria</i> Gukmedia Kultur Elkartea <i>Euskadi</i>	37.041 €	18.520 €
	BILKETA	Proiektu honek Bertsolaritza jardueren bilketa sistematizatu nahi du, euroeskualdeko ondare zaindu, sustatu eta zabaltzeko helburuarekin.	Euskal Herriko Bertsozale Elkartea <i>Euskadi</i> Nafarroako Bertsozale elkartea <i>Nafarroa</i> Bertsularien Lagunak Elkartea <i>Akitania Berria</i>	180.252 €	28.000 €
	K.B (KARRIKAN BERRIRO)	Karrikan kaleko arteak sustatzeko mugaz gaindiko plataforma bat da. Plataformak laguntza pertsonalizatua eskaintzen die bi konpainia gazteri, euskarazko edo testurik gabeko ikuskizunak sortzeko, sustatzeko eta zabaltzeko baliabideak eta jakintzak proposatuz. Profesionalentzako hainbat gida sortzea ere proposatuko du, baita lexiko hirueleduna ere.	Karrikan-Euskal Kaleko Antzerki Sarea <i>Euskadi</i> Hendaia Udala <i>Akitania Berria</i> Bilboko Udala <i>Euskadi</i> Gasteizko Udala <i>Euskadi</i> Leioako Udala <i>Euskadi</i> Ansoaingo Udala <i>Nafarroa</i>	49.970 €	21.470 €
	LU (LOTARAKO IPUINAK)	Proiektuaren helburua 5 eta 10 urte bitarteko haurrentzat pentsatutako fikzio laburren 12 atal ematea da, "irratia pilula" edo podcast formatuan eta lau hizkuntzetan (FR, CAST, EUS eta okzitania). Pertsonaiekin eta kontatutako istorioekin bidez, euroeskualdeko hizkuntzak eta kultura sustatu nahi dira.	Podcastfilia S.L. (ULU MEDIA) <i>Euskadi</i> Gure Irratia <i>Akitania Berria</i> Sudurgorri Vocal Studio <i>Nafarroa</i>	90.450 €	30.000 €
	URRATSETAN	Proiektu honen helburua hiru dantzari talderen arteko ikuskizuna sortzea da, bakoitza bere estiloan, Korrontzi taldearen musikaren doinuak lagunduta. Proiektuak hiru ekitaldi ere jasotzen ditu, eskualde bakoitzean bana.	Oinkari Dantza Taldea <i>Euskadi</i> Jeikadi Elkartea <i>Akitania Berria</i> Aurrera Dantza Taldea <i>Nafarroa</i> Korrontzi (Agus Barandiaran) <i>Euskadi</i>	53.570 €	26.785 €
	TEATRODIX	Proiektu honek hainbat jardueraren kultural biltzen ditu (jaialdiak, antzerkia, topaketak, etab.) hiru hizkuntzetan eta gai sozialak ardatz hartuta, hala nola immigrazioa, guztiontzako kulturarako sarbidea, kulturartekotasuna eta mugaz gaindiko dimentsio batean aniztasuna egotea.	Kulturix Elkartea <i>Nafarroa</i> Bizitegi Elkartea <i>Euskadi</i> Compagnie Des Syrtes Elkartea <i>Akitania Berria</i>	69.118 €	30.000 €

2 «Euroeskualdeko Berrikuntza» proiektu-deialdia

Abian diren proiektuak

Euroeskualdeak aktiboki lan egiten du bere lurralde eremuaren mailako ekonomia lehiakorra garatzeko, horretarako lankidetzazko proiektu egituratzaileak sustatuz. Ekimen horiek hiru lurraldeetan dauden osagarritasunetan eta sinergietan oinarritzen dira. «Euroeskualdeko berrikuntza» proiektu-deialdiaren bidez, bere Plan Estrategikoan sektore giltzarri gisa identifikatutako sei sektore laguntzen ditu, lurralde horietako espezializazio adimenduneko estrategiekin (RIS4) bat etorritz.

2024an, LLETak handitu egin du bere ekintza, aurreko urteetan hautatutako hamalau lankidetzazko estrategikoren eraketa eta jarraipena bermatuz.

Ingeniaritza aeroespazialaren eta fabrikazio aurreratuaren sektorean, ADRIENNE proiektuak aurrera egiten jarraitu du irratimaiztasuneko teknologiaren garapenean, besteak beste, fabrikazio gehigarriko tekniken bidez diseinatutako antena eta osagai pasiboen esparruan.

Esparru horretan, satellite txikietatik datuak transmititzeko kate erradiatzaile bat diseinatu, fabrikatu eta probatu da. Diseinuak eta egiaztapen-probek industria espazialaren arauak betetzen dituzte, eta, horri esker, proiektuaren amaieran partzialki kualifikatutako sistema bat izango da aplikazio espazietarako.

Emaitza nagusia Ka bandako 4x4-ko sare bat garatea izan da, fabrikazio gehigarriko berariak diseinatu, teknologia horrek eskaintzen dituen malgutasuna eta mugak kontuan hartuta. Halaber, ingurumenari eta irratimaiztasunari buruzko probak egin zaizkie piezei, eta frogatu da bi diseinuek behar bezala betetzen zituztela ezarritako errendimendu-zehaztapenak.


Ondorio gisa, proiektu honek SLM fabrikazio gehigarriko gaitasunen mugak handitu ditu eta teknikaren egungo egoerarekin eta literatura zientifikoarekin bat datozen ezaugarriak dituzten bi kate erradiatzaile sortu ditu, industria espazialeko aplikazioetarako bereziki diseinatuak.

Nekazaritzaren eta nekazaritzako elikagaien industriaren esparruan, INKUBA SAREA proiektua lurraldeko start-upei eskainitako mugaz gaindiko inkubagailu aitzindari gisa nabarmendu da. Azti, INTIA eta Agour buru direla, proiektuak hiru lurraldeen arteko lankidetzazko iraunkorrekotako sare bat sortzea ekarri du, nekazaritzako elikagaien start-upen sektorean espezializatutako aditu eta mentore talde batek babestuta.

Lau start-up berritzailek – **Chichorium**, **Ekhi Gold**, **O'Taste** eta **Ondogone Laboratoire** – inkubazio eta azelerazio prozesu egituratu batez baliatzeko aukera izan dute. Ilbilde hori berrikuntza bultzatzeko eta nazioartekotzea sustatzeko diseinatu zen, Euroeskualdeko lurralde bakoitzean murgiltze faseak eskainiz. Murgiltze horietan, merkatu-joerei, I+G-ari, prototipoen sorkuntzari, marketing-estragiei eta banaketareduer, inkubazio- eta azelerazio-prozesu egituratuei buruzko tailerrak egiten ziren.



● ADRIENNE



● ADRIENNE



● INKUBA SAREA

Basogintza eta egurraren sektorean, GESTFOREST CO2 proiektuak aukera eman du gaur egun Frantziako eta Espainiako administrazio zentralak hartutako karbono-kompentsazioko sistemak aztertzeke. Lan horrek bi herrialdeetan karbonoa kompentsatzeko proiektuetarako erabilgarri kalkulatu metodologiaren transferentzia erraztu du.

Proiektuaren emaitza zehatzetako bat **karbono kalkulagailu** bat argitaratzea izan da, adibide praktikoa gisa diseinatu eta Euroeskualdeko baso jabe eta kudeatzaileei zuzendurikoa. Tresnak pagadien erabilaren arabera karbonoa atzitu eta biltegitatzeko kalkulua metodologia bat aplikatzen du. Agintari eskudunek onetsitako metodologia hori beste barietate mota batzuetara eta baso-kudeaketara zabal daiteke Euroeskualde osoan. Online kalkulagailua eskuragarri **dago esteka honen bidez**. Tresna hori aurrerapen handia da, etorkizuneko karbono eta baso merkatuetan aplikatzeko aukera ematen baitu, eta, gainera, indartu egiten baitu basogintza sektoreak klima aldaketaren aurkako borrokan duen zeregina, pagadiak mugaz gaindiko karbono kompentsazio sistemetan integratuz.

Osasunaren eta bio-osasunaren arloan, **LAMIPOC** proiektuak femtoseconde laserraren (fs-laser) erabilera aztertu zuen, mekanizazio konbentzionalaren alternatiba berritzaile gisa, gailu mikrofluidikoak ekoizteko injekzio-moldeak fabrikatzeko. Helburua teknologia horren bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa ebaluatzea eta laser bidezko testurazioaren bidez gainazal funtzionalak sortzeko eta ondoren polimeroan injekzio bidez erreproduzitzeko gaitasuna aztertzea da. Molde birkonfiguratu bat diseinatu eta fabrikatu da, hainbat injekzioarekin, egitura mikrofluidikoak integratzeko. Laser-fs prozesuaren parametroak optimizatu dira bereizmen handia eta gainazalaren kalitatea optimoaz lortzeko, eta, aldi berean, kostuak murrizteko. Sortutako mikroegiturak COC polimeroetara transferitu dira injekzio bidezko moldekatzearen bidez, eta haien tolerantzia dimentsionala eta gainazalaren kalitatea baliozkotu dira.

BILEBANK 2.0 proiektuari esker (<https://bilebank.org/>), behazun-laginak biltzeko, tratatzeko, biltegitatzeko eta aztertzekeko prozedurak estandarizatu ahal izan dira, baita horiei lotutako datu klinikoak ere, euroeskualdeko hainbat zentrotan aplikatzeko. Esparru horretan, behazun-estenosiaren duten pazienteen ohiko miaketa endoskopikoetan jaso daitekeen behazunaren aurkitzen den DNA askearen mutazio-analisiak duen sentibiltasun diagnostikoa handia frogatu da. Ikuspegi horrek nabarmen handitzen du tumore hepatobiliarrak, bereziki oldarkorrak direnak, detektatzeko egungo proba klinikoaren eraginkortasuna. Tumore-gaixotasun horien diagnostikoa goiztiarra eta zehatza funtsezkoa da pazienteen biziraupena hobetzeko, eta biopsia likidoa tresna eraginkorra da zentzu horretan. Euroeskualdearen laguntzarekin, partzuergoak baliozkotu egin du ikuspegi horren eraginkortasun diagnostikoa eta pronostikoa, eta perspektiba berriak ireki ditu gibeletako eta behazuneko minbizirako doitasuneko medikuntzan.

Proyecto GestForest CO₂

Cuantificación de los efectos de la gestión forestal en hayedos, como herramienta para la mitigación del Cambio Climático

VERSIÓN EN FASE DE PRUEBAS

Calculadora créditos CO₂


Bases metodológicas



● GESTFOREST CO₂



● LAMIPOC



● BILEBANK

Hautatutako proiektu berriak

2024an, LLETak zazpi lankidetza berri hautatu zituen 2024ko «Euroeskualdeko berrikuntza» proiektuen deialdiaren esparruan, guztira 400.050,00 €-ko zenbatekoa eskainiz.

GAIA	PROIEKTUA	DESKRIBAPENA	BAZKIDEAK	PROIEKTUAREN AURREKONTUA	ONARTUTAKO DIRULAGUNTZA
Biozientzia, osasungintza, silver ekonomia	KARDIO 3D	Proiektuaren helburua Fabrikazio Jardunbide Egokiekin bateragarria den hiru dimentsioko giza ehun kardiakoa garatzea da, miokardioko infartuari irtenbide berritzaile bat eskaintzeko, hori baita heriotza kausa nagusia munduan.	Nafarroako Unibertsitatea Nafarroa Leartiker Euskadi Biotis Inserm 1026 Akitania Berria	153.677 €	71.405 €
Fabrikazio aurreratua, aeronautika, mugikortasun elektrikoa	MMAM	Proiektuaren helburua fabrikazio gehigarria (AM) teknika tradizionalekin integratzea da, erreminta euskarri pertsonalizatu arinagoak, zehatzagoak eta iraunkorragoak garatzeko.	Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA) Nafarroa Nafarroako Unibertsitateko Ingeniaritza Eskola (TECNUM) Euskadi Talleres LUJAMBIO Euskadi École d'ingénieurs - ESTIA Akitania Berria	148.635 €	73.307 €
Nekazaritzako elikagaien industria, elikadura osasungarria eta jasangarria	MALUS BAT	Proiektuak mugaz gaindiko jatorri-deitura babestu (JDB) bat ezarri eta finkatu nahi du Euroeskualdeko sagar autoktonoekin egindako sagardoarentzat.	Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea Euskadi Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Teknologien eta Azpiegituren Institutua (INTIA) Nafarroa Iparraldeko Sagarnoen Sindikata Akitania Berria	113.941 €	56.196 €
	ReTPIM 2	Proiektuaren helburua euroeskualdeko piper ekoizleen arteko mugaz gaindiko lankidetza indartzea da. RetPIM proiektuaren esparruan hasitako lankidetza da.	Syndicat de l'AOP Piment d'Espelette Akitania Berria HAZI Euskadi INTIA, SA Nafarroa	97.636 €	48.155 €
	ABENA	Ekimen honen helburua euroeskualdean mugaz gaindiko sare bat sortzea da, Betizu behi arraza bere ingurune naturalean kontserbatzeko, lurraldea kudeatzeko eta jasangarria izateko.	Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Teknologien eta Azpiegituren Institutua (INTIA) Nafarroa Lurgintza Euskadi Conservatoire des Races d'Aquitaine Akitania Berria	90.782 €	43.339 €
	ERLE-TEK	Proiektuaren helburua tokiko erle beltza babestea da, sentsoreekin eta bideozaintzarekin hautaketa genetikoak eta denbora errealeko jarraipena eginez, kolonien osasuna eta kalitate genetikoak optimizatzeko.	ERBEL Euskadi APIDENA Nafarroa BROODMINDER Akitania Berria	88.243 €	43.522 €
Energia berriztagarriak	BIOHEAT	Proiektu honek energia termikoa biltegitratzeko materialak garatu nahi ditu, baliabide biologiko berriztagarriak (argizaria, seboa, kalamu-olioa) eta nekazaritzako hondakin plastikoa elektrosinning bidezko zuntz polimerikoetan integratuz.	Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA) Nafarroa CNRS-Paueko Unibertsitatea Akitania Berria Nekazaritza Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakundea (NEIKER) Euskadi Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) Euskadi	130.000 €	64.116 €
GUZTIRA					400.040 €

3 Lankidetza Estrategikoak

Abian diren lankidetzak

Euroeskualdeko merkataritza

Lankidetza Estrategiko honen bidez, Euroeskualdeak hiru lurraldeetako enpresen eta zentro teknologikoen arteko lankidetza indartu, eta, aldi berean, euroeskualdeko merkataritza suspertu eta mugaren bi aldeetako ETEen lehen urratsak babestu nahi ditu.

Akordio horren esparruan, hiru Merkataritza Ganberek hainbat sektoretako 45 ETERi aholkularitza eskaini diete. **Emandako laguntzaren** bidez lankidetza proiektuetarako azpikontratistak, hornitzaileak eta bazkideak aurkitu ahal izan dira, bai eta establezimendu berriak sortu ere, mugaren iparraldean zein hegoaldean.

2024an antolatutako **mugaz gaindiko** hiru **topaketari** esker, funtsezko gaien inguruko eragile ekonomikoak bildu ahal izan dira. Turismoaren sektorea izan zen lehen topaketaren gaia, Iruñean egin zena, eta 80 enpresa baino gehiago izan ziren bertan. Bertan lurraldearen lehiakortasuna indartzeko euroeskualdeko estrategia turistikoak landu, jardunbide egokiak partekatu eta elkarlaneko irtenbideak aztertu ziren, hala nola lineako salmenta zerbitzuen integrazioa. Bigarren bilera Baionan egin zen, eta **nekazaritzako elikagaien sektoreari** eskaini zitzaion, euroeskualdeetako salmenta-kanalak ardatz hartuta. Saio horrek 100 ekoizle, banatzaile eta hornikuntza kateko eragileen arteko B2B trukeak sustatu zituen, merkataritza harreman sendoak ezartzen lagunduz. Azkenik, azken bilera Donostian egin zen. 105 parte-hartzaile baino gehiago elkartu ziren bertan eta ekonomia eta osasun sektorea izan zituen jardunaldiak ardatz; bertan proiektu berritzaileak aurkeztu ziren, hala nola telelaguntza prediktiboa, adinekoak monitorizatze IoT eta AA gailuak eta sare neuronalen bidezko entrenamendu sortzailea. Era berean, tailerrak egin ziren ekosistemen arteko lankidetza indartzeko eta euroeskualdeko eragileen lehiakortasun globala handitzeko estrategiak aztertzeko.

Gainera, hiru **web mintegi** antolatu ziren trukeak sustatzeko eta euroeskualdean eskuragarri dauden produktu eta zerbitzuei buruzko ezagutza handitzeko. Saio horietan gai estrategikoak landu ziren, hala nola filial baten sorrera, mugaz gaindiko salmentak sustatzeko digitalizazioaren eta adimen artifizialaren erabilera, eta merkataritzako agenteek salmenta sareen garapenean duten zeregina. Web mintegi horietako bakoitzak 60 parte-hartzaile baino gehiago izan zituen, eta horrek berretsi egiten du gai horiek enpresetan duten interesa.



Euroeskualdeko merkataritza



Euroeskualdeko merkataritza



Euroeskualdeko merkataritza



● ESS

ETESS

2024ak Ekonomia Sozialari eta Solidarioari buruzko Lankidetzaren Estrategikoak euroeskualdearen eraldaketa sozialean duen zeregina berretsi du, eta ESSko eragileen arteko mugaz gaindiko lankidetzaren indartu. **Diagnostiko partekatua** agerian utzi ditu lurraldearen erronkak eta aukerak eta tokiko berezitasunak baloratuko dituen ikuspegi komun baten beharra azpimarratu du. Berrikuntza soziala, jasangarritasuna eta ikusgarritasuna ekosistema sendoa eta koherente bat egituratzeko zeharkako lehentasun gisa definitu dira. **ESSren** bigarren **topaketak** Bordelen antolatu dira lankidetzaren horren esparruan, eta eragile nagusiak bildu dira -politikoak, unibertsitateak, ESSko enpresak eta abar-, izan ditzaketen lan bideak eztabaidatzeko, horietan aurrera egiteko eta euroeskualdeko estrategia bat idazteko. Arreta berezia jarri zaio talentua erakartzeari, enpresa espiritua garatzeari eta gobernantza indartzeari, hirurak ekintza bateratuak egiteko funtsezko palankatzat hartzen baitira. ANEL-ek, KONFECOOP-ek eta CBE Seignaux-ek gidatutako lankidetzaren helburua, behar den denboran egitura independente bat sortzea da, bere ekimenei eusteko eta lankidetzaren sozial eta solidarioko eredu gisa kokatzeko gai izango dena.

Mugaz Gaiandiko Lankidetzarako Institutua (ICT)
2024an, ICT Lankidetzaren Estrategikoak Pyrène Euroinstitutuaren egituraketan aurrera egin du, UPPAren, UPNAren eta EHUren parte hartze aktiboari esker. Ekimenaren helburu nagusia Euroinstitutuaren etorkizuneko zerbitzuak aztertzea eta zerbitzu jasangarrien katalogo bat eratzea da.

Urteko ekitaldi nabarmenetako bat lehenengo **Mugaz gaindiko ikerketen ikasleen jardunaldia** izan da. Bertan, hiru unibertsitateetako ikasle-taldeek mugaz ixtearen ondorioei buruzko beren lanak aurkeztu ahal izan zituzten. Mahai-inguruetan hainbat gai jorratu ziren, hala nola ekonomia, mugaz gaindiko bizitza eta migrazioa. Gainera, mugaz gaindiko **prestakuntza-ikastaro** batek, «Ezagutu zure bizilaguna lankidetzaren hobeto jarduteko» izenekoak, 60 parte-hartzaile bildu zituen hiru lurraldeetako erakundeak eta antolaketa-ereduak aztertzeko. «Euroeskualdearen eremuko mugaz gaindiko lankidetzarako prestakuntza» lantzen zuen **ikerketaren jardunaldi** bat ere antolatu da, lurraldeen arteko lankidetzaren mekanismoen ezagutzan sakontzeko.

Urteko ekimen nagusietako bat **mugaz gaindiko oztopoei buruzko** bi **azterlan juridiko** abiaraztea izan da. **Mugaz gaindiko langileen fiskalitatea** eta **unibertsitateko titulazio bateratuen ezarpena** izan dituzte hizpide ikerketek, biak ala biak funtsezkoak baitira euroeskualdeko integrazio ekonomiko eta akademikorako. Azterlanen helburua oztopoei ezabatzeko irtenbide juridiko eta praktikoak eskaintzea da, epe luzerako mugaz gaindiko lankidetzaren hobetzen laguntzeko.



● Mugaz Gaiandiko Lankidetzarako Institutua



● Mugaz Gaiandiko Lankidetzarako Institutua

4 Euroeskualdeko Beka

2015ean abiarazitako Euroeskualdeko Bekak 300 €-ko laguntza eskaintzen die hilero Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako unibertsitateetako ikasle eta doktoregaiei, hiru lurraldeetako batean mugikortasun akademikoa errazteko. Euroeskualdearen barruan ikasleen mugikortasuna sustatzea du helburu egitasmoak, tokiko nazioarteko mugikortasunaren logikan. Beka hau beste finantza-laguntza batzuekin ere konbina daiteke.

Gaur egun, tresnak bi zati ditu: bata graduko eta masterreko ikasleentzat, eta bestea doktoretzako ikasleentzat. 2024an, Euroeskualdeak ikerketa egonaldiko edo baterako tutoretzako kontratua zuten 9 doktoregairi eman die laguntza hori, guztira, 28,5 hilabeteko sari eskainiz. Euroeskualdeak emandako doktoretzak-bekek hainbat arlotako tesiak finantzatu dituzte, hala nola zientzia biomedikoak, historia, zuzenbidea eta zientzia agronomikoak. Ikerketa proiektu horiek, askotan batera zuzenduak, gai berritzaileak jorratzen dituzte, hala nola neurodegenerazioa, hesteetako mikrobiota eta ahazteko eskubidearen erronkak. Bekek funtsezko ezagutza zientifikoak aurreratzen eta gaurkotasuneko gai sozialak aztertzen laguntzen dute.

Ikasleei dagokienez, 75 gaztek jaso dute Euroeskualdearen laguntza, eta guztira 171 hilabete-sari banatu dira. Eskaera egiteko epea zabalik dago etengabe doktoregaientzat, eta ikasleena, berriz, uztailaren 1etik urriaren 1era zabalitzen da.

Guztira, Euroeskualdeko bekak **10 unibertsitateetako** gazteen mugikortasun proiektuak lagundu ditu. Limogesko Unibertsitateko ikasleek 2024an eskatu dute lehenengoz beka.



● Euroeskualdeko Beka

ZENTROA	ONURADUNAK	HILABETE-KOPURUA	ZENBATEKOA
BBA INSEEC - ECE	3	6	1.800 €
ESTIA	8	16	4.800 €
Bordeaux Montaine Unibertsitatea	6	15	4.500 €
Bordeleko Unibertsitatea	14	37	11.100 €
Limogeseko Unibertsitatea	2	4	1.200 €
Paueko eta Aturriko Herrialdeetako Unibertsitatea	6	18	5.400 €
Nafarroako Unibertsitatea	4	8	2.400 €
Deustu Unibertsitatea	2	4	1.200 €
Nafarroako Unibertsitate Publikoa (UPNA)	15	30	9.000 €
UPV / EHU	15	33	9.900 €
Guztira	75	171	51.300 €

Lurraldearen dinamizazioa eta ekitaldiak

1 Ikus-entzunezkoak

2 Eleaniztasuna

3 Mugaz gaindiko enplegua

4 Berrikuntza Garapen ekonomikoa

5 Bio-Osasuna

6 Goi-mailako hezkuntza

7 Mugikortasuna

8 Lurraldearen behaketa

9 Ekitaldiak eta aurkezpenak

1 Ikus-entzunezkoak



● Cartoon Movie Animazio Saria

Euroeskualdeak bere lurraldean ikus-entzunezko industria sustatzeko eta garatzeko konpromisoa indartu du 2024an. Erreferentziatzeko hainbat ekitalditan parte hartu da urtean zehar, horien artean FIPADOC, Cartoon Moovie eta Sunny Side Of The Doc.

2024ko urtarrilean FIPADOCen mahai inguru bateratua antolatu ondoren, Euroeskualdeko ikus-entzunezko lantaldeko kideek lankidetzara estutzea eta indartzea erabaki dute.

Bordeleko **Cartoon Movie**-n eman zen Animazio saria. Honakoa izan zen irabazlea: **La Revuelta de las putas**. Amelia Tiganusen istorio erakargarri eta hunkigarria kontatzen du ikuspegi feministatik. Lanak eduki konprometitu eta formatu berritzaileak uztartzen ditu. Amelia Tiganusek emakumeen aurkako sexu-indarkeria normalizatzen eta instituzionalizatzen zuen gizarte baten ondorioz okerrenei egin behar izan zien aurre; giza merkatu krudel batean harrapatuta geratu arte. Proiektu honek ikusgarritasun handiagoa eman nahi dio erresilientzia, borroka eta erresistentzia feminista agertzen dituen istorio honi. Kalitate handiko proiektu txundigarri hau, ekoizpen fasean sartu da orain, eta horrek etapa erabakigarria markatzen du errealizazioan.

2024ko ekainean, Euroeskualdeko ikus-entzunezko lantaldeko kideek, lehen aldiz, aurrerapauso bat eman zuten **Sunny Side of the Doc** jaialdian elkarrekin parte hartuta, eta horrek bultzada handia eman dio bertako lankidetzari. Betekizun berak bultzaturik, hiru ordezkaritzek standak partekatu zuten, beren batasuna eta konpromiso kolektiboa berretsiz. Ekimen horri esker, hiru lurraldeetako ekoizleen arteko topaketa espezifikoak antolatu ahal izan ziren, mugaz gaindiko lankidetzarako aukerak indartuz eta elkar hobeto ulertzen lagunduz. Parte-hartzaileen artean konfiantza eta hurbiltasun giroa sustatu zuten eztabaida informalek ere sartu ziren programan, gisa horretan, Euroeskualdeko ikus-entzunezko ekoizpenen aberastasuna eta aniztasuna nabarmenduz.

2 Eleaniztasuna

2024an, Euroeskualdeak funtsezko zeregina izan du proiektu handi baten koordinazioan: **«Hezkuntza eleaniztasuna eta hezkuntzen ikaskuntza sustatzeko eta mugaz gaindiko eremuan hezkuntza oztopoa murrizteko Hezkuntza eta Hizkuntza (HEZHI) programa»**. Euroeskualdeko eragile guztiek -erakunde publikoek, hezkuntza-eragileek, unibertsitateek eta gizarte zibileko erakundeek- lehenengoz bat egin eta elkarrekin lan egin dute lurraldeko hiru hezkuntzen (euskara, gaztelania eta frantsesa) ikaskuntza, egituratuko duen proiektu bat diseinatzeko. Proiektu berritzaile honen helburua hezkuntza-oztopoak gaindituz hezkuntza eleaniztun integratzailea sustatzea eta mugaz gaindiko harremanak indartzea da.

HEZHI proiektua **AFOMEF POCTEFA** proiektuen deialdiaren esparruan aurkeztu da 2024an. Euroeskualdearen bultzadari esker, eskualdeko funtsezko eragileek – horien artean, eskualdeetako gobernauk (Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua), unibertsitateak (Bordeleko Montaigne Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea) eta tokiko hezkuntza- eta kultura-egiturak (Seaska, Euskal Herriko Ikastolak, Euskal Kultur Erakundea, Ikasbi, Larrun Eskola) – hainbat hitzarmenetan bat egin dute. Eztabaida horiek lau ekintza handitan oinarritutako lau urteko proiektu bat definitu dute: mugaz gaindiko lurraldeetan hezkuntza eleanitzarako esparru teoriko-praktiko bat garatzea, prestakuntza eleanitza garatzea, baliabide didaktikoak eta komunikazioak garatzea, eta mugikortasuna garatzea hezkuntza sustatzeko tresna gisa.

Hautatua izanez gero, HEZHI proiektuak esparru zehatz bat eskainiko du mugaz gaindiko erronketara egokitutako hezkuntza-praktika eleanitzak esperimentatzeko eta zabaltzeko. Eskualdean benetako hezkuntza-lankidetzaren kultura sortzen lagunduko du, eta eredu izango da antzeko erronkei aurre egin behar dieten Europako beste espazio batzuentzat. Asmo handiko ekimen hori koordinatzean, Euroeskualdeak berretsi egiten du funtsezko zeregina duela mugaz gaindiko lankidetzara indartzeko eta eleaniztasuna sustatzeko, hezkuntzaren kohesioa eta berrikuntza lortze aldera.

3 Mugaz gaindiko enplegua

2024an, Euroeskualdeak sendotu egin du mugaz gaindiko enplegu arroaren garapenean duen eginkizun nagusia, langileen, enpresen eta administrazioen behar gero eta handiagoei erantzunez. Helburu nagusia lan-merkatu integratu eta orekatu baterako bidea egitea, eta, aldi berean, hiru lurraldeetako eragileen arteko lankidetzaz eraginkorra sustatzea da.

Horretarako urteko ekitaldirik nabarmenena Euroeskualdearen egoitzan egin zen azaroaren 21ean eta 22an: **Mugaz Gaiandiko Informazio Jardunaldiak**. 150 parte-hartzaile baino gehiago bertaratu ziren, eta banakako 280 elkarrizketa egiteko aukera eman zuten. Horiek agerian utzi zuten mugaz gaindiko laneko mugikortasuna eta administrazioen koordinazioa funtsezko erronkak diren testuinguru honetan, gisa honetako ekimenek duten garrantzia. Hiru lurraldeetako hamahiru erakunderekin lankidetzan antolatutako plataforma hau fiskalitateari, gizarte segurantzari, pentsioei eta lan zuzenbideari buruzko informazioa jasotzeko ezinbesteko tresna da bai langileentzat eta baita enpresentzat ere. Mugaren bi aldeetako administrazio publikoetako adituen presentziak aukera eman zuen norbanakoen beharrei zehaztasunez erantzuteko, askotan konplexuak eta espezifikoki direnak. Ekimen honen arrakastak horrelako zerbitzu baten egokitasuna berresten du, eta mugaz gaindiko trukeen arintasuna hobetzeko ahalegin horiekin jarraitzeko beharra azpimarratzen du.

Jardunaldi horiek Euroeskualdearen eta bere bazkideen arteko koordinazio estuari esker antolatu dira, hala nola Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala (GSIN), Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusia (GSDO), Gipuzkoako eta Nafarroako Ogasun Publikoak, LANBIDE, Nafarroako Enplegu Agentzia, Caisse Primaire d'Assurance Maladie (CPAM), CARSAT, CAF, Direction Générale des Finances Publiques (DGFIP), URSSAF, France Travail eta Direction Départementale de l'Emploi, du Travail et des Solidarités (DDETS).



● Mugaz Gaiandiko Informazio Jardunaldiak



● Mugaz Gaiandiko Informazio Jardunaldiak

Euroeskualdearen, Pirinio Atlantikoetako Finantza Publikoen Departamentuko Zuzendaritzaren (DDFiP64) eta Baiona-Angeluko Zerga Administrazioako Agentziaren (SIP frantsesezko siglen arabera) arteko lankidetzaz hitzarmena sinatzea izan da urteko beste mugarri garrantzitsu bat. Hitzarmen honen bidez, alderdi sinatzaileen arteko lankidetzaz sendotu eta indartu nahi da, mugaz gaindiko langileen eskubide eta betebeharrak fiskalei buruzko informazioa zabaltzeko ekintza bateratuak garatuz eta abian jarritik. Akordioak lankidetzaz estu eta iraunkor baten oinarriak ezartzen ditu, elkarrekiko konfiantzan, esperientzien trukean eta elkarlanean oinarrituta, eta, aldi berean, etengabeko kontsulta-foro bat sortzen du sentsibilizazio, hedapeneko eta sareak sortzeko baterako jarduerak planifikatzeko eta gauzatzeko. Konpromiso hori aurrerapauso garrantzitsua da erabiltzaileei mugaz gaindiko mugikortasunaren erronka konplexuei aurre egiten laguntzeko.

Ekintza horiekin jarraituz, Euroeskualdeak **AFOMEF POCTEFA** proiektuen deialdira aurkeztutako **LANEAN proiektuaren** garapena ere koordinatu du. LANBIDE, France Travail, Bidasoa Bizirik, Gipuzkoako Foru Aldundia, Mission Local, Cap Emploi eta Nafarroako Enplegu Zerbitzua bezalako bazkide estrategikoekin batera idatzitako proiektu honek Euroeskualdearen barruan benetako mugaz gaindiko enplegu arro bat egituratu nahi du. Esperotako emaitzen artean daude: mugaz gaindiko lan merkatua hobeto behatzea; arazo espezifikoak konpontzeko elkarrekin lan egingo duten eragileen sare bat eratzea eta langileentzako zerbitzu integratuak sortzea, hala nola, etengabeko informazio gune bat, enplegu azokak eta tresna digital egokiak. Proiektua hautatzen bada, aurrerapausoa izango da langileek eta enpresek eremu partekatutako horretan dituzten erronkei aurre egiteko.

Aldi berean, Euroeskualdeak hainbat gairen inguruko **banakako berrogeita hamar informazio-eskaerari** erantzun die, gaien artean daude fiskalitatea, gizarte-segurantza, jardueraren aniztasuna edo gaixotasun-asegurua. Truke horiek agerian utzi dute mugaz gaindiko ikaskuntzari buruzko informazioaren beharra gero eta handiagoa dela, eta horrek azpimarratzen du premiazkoa dela oraindik azaleratzen ari den gai horri erantzun egokiak ematea. Ikuspegi pertsonalizatu horrek indartu egiten du Euroeskualdearen zeregina, erabiltzaileen solaskide pribilegiatu gisa.

Euroeskualdeak halaber, parte hartu du beste hainbat ekitalditan ere, hala nola **Hendaiaiko Enplegu Foroan** eta Irungo **Merkalanen** eta mugaz gaindiko izapideei buruzko tailer praktikoak zuzendu ditu horietan. Erakundeak Parisen **Borders Forum** jardunaldietan ere partekatutako bere ezagutzak, non mugaz gaindiko herritarrentzako zerbitzu publikoei buruzko tailer batean parte hartu baitu. Gainera, Euroeskualdea gonbidatua izan da **Gipuzkoako zerga erreformari buruzko hausnarketa batean** parte hartzeri ere, mugaz gaindiko langileen arazo espezifikoak helarazteko. Ekarpen horiei esker, jende asko sentsibilizatu ahal izan da mugaz gaindiko egoera espezifikoetara laguntza koordinatua eta egokitua ematearen garrantziaz, eta, aldi berean, Euroeskualdeak egindako lana nabarmendu da. Besteak beste, lan merkatuari buruzko informazio argia eta eskuragarria ematearen garrantzia nabarmendu da, mugaz gaindiko mugikortasun arina eta eraginkorra bermatzeko.

2024an egindako ekintzek agerian uzten dute Euroeskualdeak konpromiso sendoa duela etengabe aldatzen ari den lurralde baten beharrei erantzuneko dien enplegu arro dinamiko eta inklusibo bat sustatzeko.



● DGFIP SIP Baiona-Angelu eta Euroeskualdearen arteko sinadura



● MERKALAN



● Borders Forum

4 Berrikuntza Garapen ekonomikoa

2024an, Euroeskualdea, Basque Trade Investment, Akitania Berria eskualdea, Team France Export eta Club des ETI (Enpresa Ertainen elkarte frantseseko siglen arabera) lankidetzan aritu dira, **euroeskualdeko misio ekonomiko bat** antolatzeko. Misioak lurraldeen arteko sinergia ekonomikoak indartzea, enpresen garapena babestea eta lankidetzak berritzaileak sustatzea du helburutzat. Hogei ETEk baino gehiagok parte hartu dute ekonomia deskarbonizatu baterako trantsizioa bizkortzeko diseinatutako programa intentsibo horretan.

Programan proiektu berritzaile esanguratsuak aurkeztu dira, hala nola Hidrogenoaren Euskal Korridorea, hidrogeno berritzaileak ekoizteko eta banatzeko sare baten mugaz gaindiko garapenerako ekimen estrategikoa dena. Orona eta Danobaten gisako erreferentziako lantegi industrialetara egindako bisitei esker, parte-hartzaileek berrikuntza teknologikoaren eta jasangarritasunaren arloko praktika onak deskubritu ahal izan dituzte.

Gaikako tailerrek enpresei aukera eman diete funtsezko gaiet buruzko iritziak trukatzeko, hala nola hidrogeno berdea, mugikortasun jasangarria eta 4.0 industria, eta, horrela, lankidetzak berrien oinarriak ezarri eta lehenetsun komunak zehazteko. Saio horiek eztabaida eraikitzaileak bultzatu dituzte, eta aukera berriak identifikatu dira hiru lurraldeen arteko lotura ekonomikoak sendotzeko.

Misioaren puntu gorenetakoa bat **hiru eskualdeetako «ezkutuko txapeldunak»** aurkitzea izan zen, sarritan ezezagunak izan arren tokiko ekonomiarentzat funtsezkoak diren enpresak direnak. Elkartruke aberasgarrien bidez, eragile horiek beren arrakastak partekatu, eta lankidetzak bideak aztertu dituzte, nazioarteko merkatuetan duten presentzia handitzeko eta berrikuntzaren eta jasangarritasunaren erronkei aurre egiteko.

Ekimen honek agerian jartzen du Euroeskualdeak eta bere kideek mugaz gaindiko lankidetzak ekosistema bat sortzeko duten konpromisoa, zeina egokia izango baita berrikuntzarako, jasangarritasunerako eta garapen ekonomiko partekaturako.



● Danobat



● Misio komertziala



● Misio komertziala

5 Bio-Osasuna

● Akitania Berria, Euskadi eta Nafarroako Bio-Osasunaren 9. Topaketak

2021-2027 Plan Estrategikoaren esparruan, Euroeskualdearen helburua bere lurraldeen garapen lehiakorra eta erresilientea babestea da, tokiko zein mugaz gaindiko ikuspegia hartuta. Osasungintzaren sektorean berrikuntza indartzeko asmoz, erakundeak 2016az geroztik babestu du Akitania Berria-Euskadi Nafarroa Bio-Osasun Topaketa, hiru lurraldeetako osasun-eragileen arteko lankidetzak eta ezagutza-trukea sustatzeko ekitaldi adierazgarria dena.

2024ko azaroaren 20an, **Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako IX. Bio-Osasun** Topaketa enpresen, start-upen, ikertzaileen, inbertitzaileen eta osasunaren sektoreko berrikuntzan inplikaturako guztien arteko trukeetarako plataforma izan zen. Ekitaldiak agerian utzi zituen Europako Batzordeak osasunaren arloan datozen urteetarako dituen lehenetsun estrategikoak, eta EMEaren EMS programan ere zentratu zen, euroeskualdeko enpresentzako aukerei buruzko ikuspegi zehatzak eskainiz.

2024ko «Euroeskualdeko BIO-OSASUN» saria

Topaketa horien esparruan, Euroeskualdeak «Euroeskualdeko Bio-Osasun» sariaren bigarren edizioa antolatu du 2024an, osasun sektoreko enpresen garapena sustatzeko. Saria bi kategoriatan banatzen da: Biofarma (produktu farmazeutikoak, bioteknologia, dermatologia, kosmetika, etab.) eta Osasunaren Teknologia (produktu sanitarioak, e-health, in vitro diagnostikoa, etab.). Kategoría bakoitzak 3.000 euroko zuzkidura du.

Finalisten aurpezpenen ondoren, proiektuak euren berrikuntza mailaren, hazkunde potentzialaren eta Euroeskualdearekiko harremanaren arabera ebaluatu ziren. **Miramoon**-ek jaso du «**Biofarmazia**» kategoriako saria, MP-004 konposatu liderragatik, zelula ftohartzaileen endekapena moteltzen duelako eta erretinaren funtzioa zaintzen duelako erretinosi pigmentarioaren tratamenduan. «**Osasun teknologia**» kategorian, **Sit Up**-ek irabazi du saria, bere ohe mediko bertikalagatik, zaintzaileei pazienteen zaintza errazteko eta independentzia handiagoa emateko diseinatu, pazienteak minutu bat baino gutxiagoan altxatzeko aukera emanez.



6 Goi-mailako hezkuntza

Euroeskualdeko unibertsitate lankidetzaren esparruan 2024an egindako lanak goi-mailako irakaskuntzako erakundeen arteko harremana indartu du, ezagutzaren zirkulazioa eta ikasleen mugikortasuna erraztuz.

Aurten, Euroeskualdeak unibertsitate lankidetzaren garatzeko konpromisoa berretsi du, funtsezko ardatz estrategikoa baita gure hiru lurraldeen arteko harremanak sendotzeko. Hainbat ekitaldi izan dira dinamika horren erakusle, eta horiei esker euroeskualdeko unibertsitate-sarea hedatzea lortu da. 2022an abiarazitako estrategiak barne hartzen ditu estrategia horiek, eta bertako ardatz dira sareak sortzea, ikerketa, prestakuntza eta euroeskualdeko mugikortasuna.

Urteko ekitaldi garrantzitsuenetako bat otsailaren 12an Miarritzen egindako **Euroeskualdeko II. Unibertsitate Topaketa izan zen**, mundu akademikoko 150 profesional baino gehiago bildu zituen. Ekitaldia elkartruckerako plataforma aberatsa izan zen. Bertan, abian zeuden proiektuak nabarmendu ziren, eta, aldi berean, unibertsitateen, ikertzaileen eta mugikortasun arduradunen artean sinergia berriak sortzea ahalbidetu zen. Hiru lan-saio antolatu ziren, haietan gai espezifikoak helzteko. Lehenengoak euroeskualdeko 11 unibertsitateetako errektoreak eta presidenteak bildu zituen, erronka komunak partekatze eta lankidetzaren ardatzak identifikatzeko elkarrizketa foro bat eskainiz. Bigarrenak mugikortasun eta praktiketako arduradunei aukera eman zien euroeskualdean mugikortasun sistema integratuago bat abian jartzea eztabaidatzeko, eta horrela ikasleen trukeak errazteko. Azkenik, hirugarrenak ehun bat ikertzaile bildu zituen etorkizuneko lankidetzaren zientifikoak aztertze eta baterako ikerketa-proiektu berriak identifikatzeko. Bilera horiek B2B topaketekin eta pitch formako aurkezpen osatu ziren, eta, horiei esker, parte-hartzaileek aurrez aurre elkar ezagutu, beren proiektuei buruz eztabaidatu eta etorkizuneko lankidetzarako oinarriak ezarri ahal izan zituzten.



● Euroeskualdeko II. Unibertsitate Topaketa



● Euroeskualdeko II. Unibertsitate Topaketa

Beste une garrantzitsu bat **UNINAEN plataformaren** aurkezpen ofiziala izan zen, Euroeskualdeko eragile unibertsitarioen arteko trukeak eta lankidetzaren errazteko diseinutako tresna digital berritzailea. Atari honek unibertsitateak sarean jartzeko, informazioa partekatze eta euroeskualdeko proiektuak sortzeko gune bat du. UNINAENek Euroeskualdeko unibertsitate lankidetzaren erraza eta irisgarria sustatzeko duen borondateari erantzuten dio, irakasleen, ikertzaileen, mugikortasun kudeatzaileen eta proiektu arduradunen arteko etengabe interakzioa sustatuz. Kontsultatu plataforma [hemen](#).

Era berean, Euroeskualdeak **Mugaz Gaiendiko Udako Ikastaroen hirugarren edizioa** antolatu du, urteko beste ekitaldi nagusietako bat, non 700 pertsonak parte hartu baitzuten. Goi-mailako irakaskuntzaren arloan, Euroeskualdeak **mugaz gaindiko unibertsitate-lankidetzari buruzko ikastaro bat** antolatu zuen, eta 50 parte-hartzaile bildu zituen. Bertan mugako unibertsitateen arteko lankidetzari lotutako aukerak eta erronkak aztertu ziren. Ikastaroak unibertsitateko lankidetzaren hurbilpen eta ikuspegi desberdinak partekatze eta aukera eman zuen, eta, aldi berean, eskualdeko eta, ondoren, Europako goi-mailako irakaskuntza indartzeko hedatutako estrategia politikoak eta lurraldekoak nabarmendu zituen. Mugaz gaindiko unibertsitate lankidetzak lurraldeen garapen ekonomiko eta akademikorako abantaila ugari dituen arren, erronka garrantzitsuei aurre egiten jarraitzen du. Europako herrialdeen arteko desberdintasun juridiko, administratibo eta kulturek zaildu egiten dute lankidetzaren hori. Hizlariak oztupo horiek gainditzeko lankidetzak eta trukeak duten garrantzia nabarmendu zuten, Europako beste muga batzuetan aplikatutako praktika onenetan oinarrituta.

2024an aurrerapen esanguratsuak egin dira euroeskualdeko unibertsitate lankidetzaren, lurraldeen arteko loturak indartu dituzten proiektu eta ekimenei esker, eta, aldi berean, etorkizunerako lankidetzaren berriarako oinarriak ezarri dira.

7 Mugikortasuna

Euroeskualdeak mugaz gaindiko garraioa herritarrentzako funtsezko zerbitzu bihurtzeko borondateari eusten dio, 2021-2027 aldirako Plan Estrategikoan jasotzen den bezala.

Ildo horretan, 2024an, TRANSFERMUGI proiektua aurkeztu da **AFOMEF POCTEFA** proiektuen deialdian. Egitasmoak Mendebaldeko Eremu Funtzionalean garraio publikoko zerbitzuak hobetzea du helburu.

Hautatuz gero, trenbide-zerbitzuak eta errepideko garraio publikoko zerbitzuak martxan jartzera bideratuko da, intermodalitatea eta guztientzako irisgarritasuna indartuz. Proiektuaren helburua auto pribatuarekiko mendekotasuna murriztea da, garraio publikoko zerbitzuarako sarbidea erraztuz. Horretarako, lurraldeko garraio-agintaritzek (Eusko Jaurlaritza, Akitania Berria eskualdea, Pays Basque-Adour Syndicat des mobilités, Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia) eta Euroeskualdeko ekintza berritzaile batzuk abiaraziko dituzte. Batetik, trenbide eta autobus proiektu pilotu berriak jarriko dira martxan mugaren beste aldeko lehen hiriraino. Bigarrenik, trenbide eta trafiko azpiegiturei buruzko azterlanak egingo dira. Azkenik, geraleku estrategikoen garapena ere jasotzen du proiektuak.

Gainera, 2024an Euroeskualdeak mugaz gaindiko trenbide konexioari buruzko azterlan bat amaitu du, mugaren bi aldeetako etorkizuneko tokiko trenbide sareak konektatzeko erabakia oinarritzeko ez ezik, Donostia eta Baiona arteko epe ertainerako trenbide zerbitzuarako tarteko agertoki baten bideragarritasun teknikoa neurtzeko ere balioko duena.

Lanaren emaitzen ondorioz, Euroeskualdeko proiektu bat **Resilient Borders** ekimenaren esparruan hautatu da. Azken horrek, euroeskualdeko ibilbide-orri bat diseinatu nahi du, lurralde-antolamenduaren epigrafean, non agintarien, azpiegitura-kudeatzaileen eta operadoreen konpromisoak kontuan hartuko baitira, aipatutako hirien arteko zerbitzu publikoko kontratuen esparruan.



● Joint Technical Workshop on International Rail Passenger and Freight Traffic

Proiektua 2025erako amaitzea dago aurreikusita. 2024an bi ekintza zehatz nabarmentzen dira. Ekainean, Euroeskualdearen babespean, Trenbide Azpiegiturei buruzko lantaldea bildu zen, bertako zerbitzuetan onurak ekarriko dituzten ezarpenen aldeko lanketa egiteko. Horrez gain, abenduan Bordelen antolatutako nazioarteko trenbide-trafikoari buruzko tailerrean ere aktiboki parte hartu zuen Euroeskualdeak. Bertan, bidaiarien eskualde-trafikoari buruzko mahai-inguru bat moderatu zuen, agintaritzak, segurtasun-agentzia eta sektoreko operadore ugari bilduz.

Bidaia-txartel konbinatuari dagokionez, 2024ak PassBask mugaz gaindiko txartelaren hitzarmen berriaren hasiera markatzen du, eta Euroeskualdeak beregain hartu du operadoreen eta haien agintarien arteko koordinazioa. Txartel horrek tarifa-murrizketak eskaintzen ditu Donostia eta Baiona arteko korridorean Euskotren eta SNCF konpainiek ematen duten zerbitzuetan.

8 Lurraldearen behaketa

Euroeskualdeak jarduten duen lurraldea hobeto ezagutzeko zeharkako tresnak eskuratzera bideratu du bere ahaleginen zati bat. Horretarako, Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako estatistika zerbitzuekin lan egin du. 2024an Euroeskualdeko lantaldeak estatistika atari bat prestatzeko elkarlanean jarraitu du estatistika zerbitzuekin. Bertan hainbat kategoria analitiko bilduko dira, bai eta eskualdeen arteko konparazioa, eta ordezkatzeko duen bizi ingurunearen ezaugarri kuantitatibo eta kualitatiboak islatzen dituzten adierazle batzuk ere.

LLETak eta Insee, Eustat eta Nastat institutuek hainbat bilera izan dituzte Euroeskualdearen behaketa estatistikorako atari espezifiko baten ildo nagusiak zehazteko. Kategoria tematikoen eta adierazleen oinarri komun bat definitu ondoren, atari horrek 2025ean ikusiko du argia, eta serie historikoen eta bi aldeek eskuragarri dituzten datu berrien arabera eboluzionatuko du.

9 Ekitaldiak eta aurkezpenak

Urte osoan zehar honako master hauetan esku hartzea:

- Atzerriko hizkuntza aplikatuak – Bordeaux Montaigne Unibertsitateko mugaz gairik proiektuen kudeaketa adarra.
- Komunikazio publikoa eta politikoa, Bordeaux Montaigne unibertsitatean.
- Mugaz gairik eta lurralde arteko lankidetzak, UPPAn.

Urtarrila

- 19 Bilbo**
«Talentuaren eguna» jardunaldian parte hartzea



- 22 Miarrizte**
«Succès stories y coproducción euroorregional» mahai-inguruaren antolaketa eta moderazioa FIPADOCen



Otsaila

- 7 Angulema**
«CVL-Parlons-en» jardunaldian parte hartzea

- 12 Miarrizte**
Miarrizteko Euroeskualdearen II. Unibertsitate Topaketa antolatzea



- 21 Bordele**
«Euroeskualdeko animazioa» saria Cartoon Moovien

Martxoa

- 4 Erriberri**
Euroeskualdeko Batzar Nagusia



- 5 Bordele**
«Euroeskualdeko animazioa» saria Cartoon Moovien

- 7 Toulouse**
POCTEFA 1. PD-an hautatutako proiektuen informazio ekitaldian parte hartzea

- 22 Oloroe-Donamaria**
Oloron Sainte-Marie Pirinioez Gairik Gazteriaren III. Foroan parte hartzea



- 25**
Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP), Paueko eta Aturriko Herrialdeetako Unibertsitateko (UPPA) eta Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) ikasleen arteko lehen ikerketa-jardunaldia

Apirila

- 12 Hendaia**
Euroeskualdeko batzar nagusia

- 17 Irun**
Irungo Mubil Mobility Expo 2024an parte hartzea



- 18 Hendaia**
Hendaia V. Enplegu Foroan parte hartzea



- 26 Bilbo**
«Talentuaren eguna» jardunaldian parte hartzea

Maiatza

- 15 Bordele**
«CESER – Europako funtsak eta Akitania Berriko lurraldeak», jardunaldian parte hartzea

- 17 Estrasburgo**
Mugikortasunari buruzko Europako Jardunaldien VI. edizioan parte hartzea



- 23 Hendaia**
AFOMEF POCTEFA PD argitaratuko dela iragartzeko prentsurrekoa



- 24**
AFOMEF PDri buruzko proiektuen sustatzaileentzako web mintegia antolatzea

- 31 Baiona**
«Aaren eta teknologia digital aurreratuak hastapenetan ekoiztea» jardunaldian parte hartzea

Ekaina

- 7 Iruñea**
Turismoari buruzko mugaz gaindiko topaketetan parte hartzea
- 10 Hendaia**
«Vivre et Travailler en zone transfrontalière» tailerraren antolaketa, France Travail eta Lanbiderekin batera
- 14 Miarritze**
«Place de l'Emploi» jardunaldian parte hartzea



- 17 Donibane Lohizune**
France Travail agentzia berriaren inaugurazioa



- 18 Brusela**
«Garapenerako mugaz gaindiko gobernantza indartzea» konferentzian parte hartzea. Konferentzia Bruselan antolatu zuten DG REGIO eta ELGAK



- 26 Arroxela**
Sunny Side of the Doc jaialdian stand-a partekatzea



Uztaila

- 10 Donostia**
«Mugaz gaindiko euskal lankidetzaren bidez europar herritartasuna sortzea» mahai-inguruan parte hartzea, EuroBasquek antolatuta
- 15 Baiona**
«Mugaz gaindiko unibertsitate lankidetzak sortzea mugaz gaindiko eskualdeen motor gisa» mugaz gaindiko uda ikastaroa antolatzea



Iraila

- 16 Hondarribia**
«Europako plazak» ekitaldian parte hartzea



- 17 Hendaia**
«Europa eraiki tokiko kargu publikoekin» jardunaldiaren antolaketa

- 25 Iruñea**
Euroeskualdeko Batzar Nagusia



- 27 Hendaia**
Ingurumen hezkuntzari buruzko mugaz gaindiko topaketen antolaketa



Urria

- 2 Irun**
«Mugaz gaindiko langilea izatea» hitzaldia Merkalanen
- 3 Baiona**
Nekazaritzako elikagaien arloari buruzko Networking Mugaz Gaindiko Topaketan parte hartzea



- 4 Gasteiz**
Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresuan parte hartzea

- 9 Brusela**
Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako ordezkartzeekin topaketa eta bilera

- 14 Bordele**
«Euskampus Bordeaux» egunean parte hartzea

- 23 Bera**
«Europako plazak» ekitaldian parte hartzea

- 23**
AFOMEF proiektu-deialdiaren amaier

- 24 Irun**
Klima aldaketari buruzko «Uhinak» kongresuan parte hartzea

Azaroa

- 5 Bilbo**
«Financing interregional innovation cooperation through mainstream programmes and cross-programme synergies» peer review jardunaldian parte hartzea



- 6 Bilbo**
Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako enpresen arteko misio ekonomikoan eta trukeetan parte hartzea, industria berrikuntzan oinarrituta

- 7 Bartzelona**
Eurorégion Pyrénées-Méditerranée-ren XX. urteurrenean parte hartzea

- 12 Donostia**
Silver Economyri eta Osasunari buruzko Mugaz Gaindiko Networking Topaketan parte hartzea

- 13 Gasteiz**
«Euskal Hiria, del dato al territorio» kongresuan parte hartze

- 20 Bordele**
IX. Bio-osasun Topaketa Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa eta 2024ko Euroeskualdeko Bio-osasun Saria

- 20 Hendaia**
Euroeskualdea, Direction départementale des finances publiques des Pyrénées-Atlantiques (DDFIP64) eta Baiona-Angeluko Zerga Administrazioiko Agentziaren (SIP) arteko lankidetzakordioaren sinadura



- 21 Hendaia**
Mugaz Gaindiko Informazio Jardunaldiak antolatzea

- 25**
Parte hartzea International Dialogue Event on Cross-border Governance – OECD jardunaldian

- 25 Toulouse**
LEren Osoko Bilkuran parte hartzea, gazteei buruzko mahai-ingurua

- 26 Donostia**
Parte hartzea «Hizkuntzen Irabazia. Benefits of Language Industry in the Economy» kongresuan, Donostian, Langunek et Fuenek antolatuta

Abendua

- 3 Paris**
Borders forumean parte hartzea



- 11 Bordele**
Moderazioa Bordeleko Joint Technical Workshop on International Rail Passenger and Freight Traffic guenean



AFOMEF

Mendebaldeko Eremu Funtzionala



Mendebaldeko Eremu Funtzionala
Área Funcional Oeste
Aire Fonctionnelle Ouest

Interreg
POCTEFA



Cofinanciado por
la UNIÓN EUROPEA
Cofinancé par
l'UNION EUROPÉENNE



AFOMEF:
benetako bizi inguruneak eta mugaz
gaindiko lankidetzarako funtsezko
espazioa

Euroeskualdeak aurrerapen garrantzitsuak egin ditu AFOMEF eremuaren kudeaketan eta koordinazioan. POCTEFA programaren programazio-aldi berriak (2021-2027) EGEF funtsen lurralde-banaketa handiagoa dakar, bereziki «Herritarrengandik hurbilago dagoen Europa» izenburupeko 5. helburu politikoari esker.

Ikuspegi hori eremu funtzionaletan edo bizi inguruneetan oinarritzen da, hots, lurraldeen eta tokiko ekimenen garapen sozial eta ekonomikoa sustatzeko diseinatutako eremu txikiagoetan. Gune horiek Europako benetako berrikuntzarako laborategiak dira, eraginpeko lurraldeen arteko mugaz gaindiko lankidetzari dagokionez: Euskadi, Nafarroa eta Akitania Berria eskualdearen hegoaldea, Biarnoko Barétous haraneraino.

2023ko abenduan aurkeztu zenetik, AFOMEF lurraldearen ezaugarri nagusia harreman eta erronka partekatu maila handia da, lankidetzan landu eta ezarpen prozesuan dagoen Lurralde Estrategia Integratu Berritzaile eta Multitematikoak AFOMEF/Mendebaldeko Eremu Funtzionala.



ENPLEGUA	MUGIKORTASUNA	ELEANIZTASUNA
ERRONKA Mugaz gaindiko enplegua sendotzea	ERRONKA Mugaz gaindiko mugikortasun iraunkorra, interkonektatua eta multimodala bultzatzea	ERRONKA Hizkuntza-hesia gainditzea
HELBURUAK Lan-merkatuaren ezaugua, informazioa eta laguntza indartzea	HELBURUAK - Mugaz gaindiko garraio-zerbitzuak hobetzea - Mugikortasun aktiboa eta iraunkorra sustatzea	HELBURUAK - Euskararen ezaugua eta erabilera hizkuntza komun gisa bultzatzea - Lurraldeko hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza sustatzea

2024an ezarritako AFOMEF Lurralde Estrategia Integratuaren alderdiak

2024an, lurralde estrategiaren hedapenean jarraitu dugu, 14,8 milioi euroko AFOMEF POCTEFA proiektu-deialdia argitaratuta.

Deialdia Mendebaldeko Eremu Funtzionaleko bide orriaren ardatz estrategikoetan oinarritzen da, gure tresnaren funtsezko zutabe dena. Ekimenaren helburua gure mugako lurraldean funtsezkoak diren hiru gairen inguruko proiektu egituratzaileen sorrera erraztea da: mugikortasuna, enplegua eta eleaniztasuna.



Euroeskualdeko AFOMEF unitate teknikoa maila anitzeko gobernantza proiektu honen kudeaketagatik nabarmendu da, lurraldeko funtsezko eragileen aurrekaririk gabeko mobilizazioaren bidez, proiektu egituratzaileak sortzeko lurralde dinamismoa sustatu baitu. Tokiko sinergiak ere indartu dira, mugaz gaindiko herritarren bizi kalitatean eragin handia duten proiektu egituratzaileak sustatzeko.

POCTEFaren inplikazioak eta AFOMEFek etapa bakoitzean duen gobernantzak, bertako batzorde teknikoan Préfecture des Pyrénées-Atlantiques-en integrazioak indartuta, estrategiaren eta tresnaren aurrerapenean eta arrakastan parte hartu dute, gobernantza hedatua bultzatuz.

Proiektu-deialdia eta hautaketa prozesua

AFOMEF POCTEFA Proiektu-deialdia maiatzaren 23an abiarazi zen, Euroeskualdearen egoitzan, eta, harekin batera, prentsaurreko bat egin zen Zuzendaritza Batzordeko kideen aurrean (COPIL, frantsesezko siglen arabera).

Maiatzaren 24an, POCTEFaren Idazkaritza Bateratuarekin lankidetzan, balizko onuradunei zuzendutako webinario bat antolatu genuen, 100 pertsona baino gehiagoren partaidetza konektatua izan zuena.



AFOMEF gobernantza: Jean-Pierre Mirande, Joseba Erremundeguy, Mathieu Bergé, Mikel Anton eta Iker Goiria (ezkerretik eskuinera)



Deialdia urriaren 23an itxi zen. Lurralde-eragileekin lan handia egin den bost hilabete hauetan, deialdiarekin, hautagaitzak aurkezteko SIGEFA plataforma erabiltzearekin, proiektuen diseinuarekin, ekintzekin eta aurrekontuarekin lotutako galdera teknikoei erantzun zaie, Lurralde Estrategia Integratura egokitzen direla bermatzeko.

Horrez gain, AFOMEF hautaketa prozesua definitu da, eta horren baitan, ebaluazio-taula espezifiko bat garatu, instrukzio prozesurako egutegi bat ezarri eta deialdiaren esparruan proiektu hautagarriak baloratzeaz arduratzen diren zerbitzuen koordinazioa egin da.

Sei proiektu aurkeztu dira guztira, eta instrukzio-zerbitzuetara bidali dira ebaluatzeko, honela banakatuta: bi proiektu Mugikortasunaren arloan, mugaz gaindiko mugikortasun jasangarria, interkonektatua eta multimodala sustatzeko: **TRANSFERMUGI** eta **MUGAZIKLO**; proiektu bat Enpleguaren arloan, **LANEAN**, mugaz gaindiko enplegu-poltsa sendotzeko; eta, azkenik, hiru proiektu Eleaniztasunaren arloan, hizkuntza-oztopoa gainditzeko: **SAREBIDE**, **EUSGUNEAK** eta **HEZHI**.

Komunikazioa

Webgunea (www.afomef.eu) erabat eskuragarri dago, eta atal espezifiko batekin osatuko da, proiektuak aukeratu ondoren. LinkedInen profil bat ere ireki dugu, apiriletik aurrera etengabeko komunikazioa bermatzeko. Ekimen horri esker, AFOMEFek sare sozialetan duen presentzia indartu eta gure ikusgarritasuna handitu dugu.





2021-2027 Plan Estrategikoko adierazleen jarraipena

2021-2027 Plan Estrategikoko adierazleen jarraipena

Adierazleak	2027rako helburua	2024an lortutako balioak	2021	2022	2023	2024	2025	2026	2027
Lantaldeetan parte hartzen duten eragileak	126	94					75 %		
Lantalde kopurua	10	18							180 %
Lantaldeen bilera kopurua	150	90				60 %			
Lantaldeek garatutako ekimen kopurua	50	28				56 %			
Lantalde bat baino gehiago inplikatzten duten ekimen garatu kopurua	5	2		40 %					
Identifikatutako oztopo kopurua	20	12				60 %			
Garatutako lankidetzak estrategiko kopurua	20	17						85 %	
Finantzatutako proiektu kopurua	300	115		38 %					
Proiektu deialdietan jasotako eskaera kopurua	550	260			47 %				
Euroeskualdeak finantzatutako proiektuetan parte hartzen duten kideen kopurua	1.000	504				50 %			
Burututako finantziazioaren ehunekoa	80 %	56 %					70 %		
Euroeskualdeak finantzatutako proiektuen finantzaketaren bolumena	10.000.000 €	5.032.524,53 €				50 %			
Palanka-efektuko inbertsio bolumena Euroeskualdeak finantzatutako proiektuentzat	20.000.000 €	11.991.563,61 €				60 %			
Euroeskualdeko bekaren onuradun kopurua	500	323					65 %		
Europako funtsak erakarriko dituzten proiektu kopurua	14	8				57 %			
Bilduak izan diren Europako funtsen bolumena	7	2	29 %						
Egindako komunikazio ekintzen kopurua	36	27					75 %		
Langileentzako informazio kopurua	600	370					62 %		
LLETak antolatutako hitzaldi eta ekitaldi kopurua	60	33				55 %			
Abian ezarri diren parte-hartze prozesu kopurua	15	9				60 %			
LLETaren agerpena hedabideetan	350	589							168 %
Parte hartze prozesuetan jasotako ekarpen kopurua	200	473							237 %
LLETak parte hartzen duen ekitaldi eta hitzaldi kopurua	30	168							560 %
Sare sozialetako harpidedun kopurua	5.250	5.377							102 %
Bisita kopurua LLETaren webguneetara	100.000	229.255							229 %
Jasotako aitortzak	5	1	20 %						



Balantze ekonomikoa

2024ko aurrekontuan **2.800.000,00 €**-ko sarrera eta gastuak jasotzen ditu guztira. Gastuak **2.244.904,09 €**-koak izan dira eta sarrerak **1.700.728,98 €**-koak.

Defizita kapitalizatutako soberakinak xurgatuko du. Ekitaldiaren amaieran **+ 332.811,15 €**-koa da soberakin hori.

Hamabigarren urtez jarraian, Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdearen aurrekontuak ez du ez zorrik ez mailegurik aurkeztu.

2024KO GASTUAK			
Gastu mota	Aurreikusitako gastuak	Egindako gastuak	Exekutatutako % / aurreikuspena
Izaera orokorreko gastuak	990.369,18 €	577.170,47 €	58 %
Langile-gastuak	450.500 €	444.330,65 €	99 %
Amortizazioa	7.426,45 €	7.426,45 €	100 %
Ordaindutako dirulaguntzak	1.300.000 €	1.210.669 €	93 %
Inbertsioen atalera eginiko transferentziak (agindutako eragiketak)	1.704,37 €	-	-
Inbertsio-gastuak	50.000 €	5.107,12 €	10 %
GUZTIRA	2.800.000 €	2.244.703,69 €	81 %

2024KO DIRU-SARRERAK			
Diru-sarrera mota	Aurreikusitako diru-sarrerak	Jasotakoak	Exekutatutako % / aurreikuspena
Eskualdeen ekarpena	1.650.000 €	1.650.000 €	100 %
Transferitutako soberakinak (eskaera-eragiketa)	836.786,23 €	-	-
Beste erakunde batzuen ekarpenak (POCTEFA, ibilbideen kalkulagailua, askotariko ordainketak...)	263.213,77 €	42.633,38 €	16 %
Inbertsioen etekinak	50.000 €	8.095,60 €	16 %
GUZTIRA	2.800.000 €	1.700.28,98 €	61 %



Gure bazkideen testigantzak...

« Muy bien organizado,
los trabajadores muy
eficientes, muy amables,
muy cercanos,
muy atentos, todo fue
muy positivo. »

Mugaz gaindiko Informazio Jardunaldiei
buruzko mugaz gaindiko langile baten
testigantza

« Plazer bat da zuekin
lan egitea dena
biziki ondo antolatua
baituzue. »

Euroeskualdeko Berrikuntza
proiektu-deialdiko instruktorea

« C'est un plaisir de travailler
avec l'Euro région tous les ans,
les projets sont très intéressants
et le format de l'évaluation avec
les collègues gratifiant.. »

Euroeskualdeko Berrikuntza
proiektu-deialdiko instruktorea

« Quisiera lo primero agradecerle
la organización del evento de
hoy, simplemente enriquecedor
y perfectamente planificado. La
verdad que para nuestro equipo ha
sido gratificador.

Eskerrik asko. Badakit esfortzu
handia eskatzen duela lan honek. »

Euroeskualdeko II. Unibertsitate topaketako
parte-hartzailea





NOUVELLE-AQUITAINE • EUSKADI • NAVARRE
AKITANIA BERRIA • EUSKADI • NAFARROA
NUEVA AQUITAÑA • EUSKADI • NAVARRA

euroregion-naen.eu



18 rue Leku Eder
ZI des Joncaux
64700 Hendaye



LLET Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdea
AECT Euroregión Aquitania-Euskadi-Navarra
GECT Eurorégion Aquitaine-Euskadi-Navarre

Argazkiak: Olivier Houeix - Beñat Revuelta - Euzkadi-Akintura - Navarra Capital - European Week of Regions and Cities - Adil Iciar Mantrola
Victor Ruiz - Dora Diez Burzako - Oscar Larraz Ekandil - David Tijero Osorio - Jorge Ferreira Sebastião - Maritxu - Diseinu grafiko: benusabodetxak.com